



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Bizkaiko Foru Aldundia

#### Ogasun eta Finantza Saila

**«Bermeoko saihebiderearen trazadura-proiektua» gauzatzeko izapidetutako desjabetze-prozedurako 103/0 eta 104/0 finketatik datozen lur zati batzuen desafektazioa jendaurrean jartzea.**

Ogasun eta Finantzetako foru-diputatuak, apirilaren 21eko 205/2026 Foru Agindua-ren bidez, jabari publikoaren desafektazio-prozedura hastea erabaki du, erabilera edo zerbitzu publiko bat emateari atxikita ez daudelako, jarraian deskribatzen diren lur-zatiak (planoa erantsi da, eranskin gisa).

1. Desafektatu beharreko 103/0. finkari dagokion lursailak honako deskribapen hau du:

- 72,97 m<sup>2</sup>-ko lursaila, Aranondo auzoan, Bermeoko udalerrian. Katastroan, bat dator 4. poligonoko 388.
- Mugak: iparraldean, desafektatu beharreko lursaila; hegoaldean eta mendebaldean, jabari publikoko lursailak; ekialdean, finka nagusia.
- lurzatiaren zati batekin eta, erregistroan, Gernika-Lumoko Jabetza Erregistroko Bermeoko 24.203. erregistro-finkaren zati batekin.
- Bermeoko saihebiderea eraikitzeke desjabetu zuten. Desjabetze-espeditentean 103/0 zenbakiko finka gisa identifikatuta zegoen.

2. Desatxiki beharreko 104/0 finkari dagokion lursailak honako deskripzio hau du:

- 66,13 m<sup>2</sup>-ko lursaila Aranondo auzoan, Bermeoko udalerrian.
- Mugak: iparraldean eta ekialdean finka nagusia; hegoaldean desafektatu beharreko lursaila; ekialdean finka nagusia eta mendebaldean jabari publikotik desjabetutako lursailak.
- Katastroan, bat dator 4. poligonoko 388. lurzatiaren zati batekin eta, erregistroan, Gernika-Lumoko Jabetza Erregistroko Bermeoko 24.232. erregistro-finkaren zati batekin.
- Bermeoko saihebiderea eraikitzeke desjabetu zuten. Desjabetze-espeditentean 104/0. finka gisa identifikatuta zegoen.

Lursail zati horiek BI-631 Bilbo-Bermeo foruerrepidearen zati dira, Bermeo udalerrien parean. Errepide hori alta emanda dago Bizkaiko Foru Aldundiaren Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Orokorrean, TER DFB0/702/1 ondasun higiezin gisa, eta gaur egun ez dira beharrezkoak desjabetze bidez eskuratu zen bide-erabilera edo -zerbitzu publikorako.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ondarea arautzen duen azaroaren 16ko 3/2006 Foru Arauaren 55.2.b) artikuluan xedatutakoa betetzeko, desafektazioari hasiera emateko ebazpena jendaurrean egongo da erakusgai, honako hau argitaratu eta biharamunaz geroko hogeit (20) egun balioduneko epean zehar, Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuaren bulegoetan (Bilboko Basurtuko Kaputxinoen bidea, 2, 5. solairua).

Epe hori igaro eta erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu ez bada, jabari publikoa desafektatzeko prozedura amaitutzat joko da, eta higiezin horiek ondare-ondasunen edo jabari pribatuko ondasunen kalifikazio juridikoa lortuko dute.

Bilbon, 2026ko apirilaren 23an. — Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren Zuzendari Nagusia, Aitor Cobo Presilla

